

KOSTU-EGITURA

Gure produktuak gauzatzeko hainbat gastu izango ditugu izaera zein kopuru ezberdinekoak, baina bi multzotan sailka ditzakegu: kostu finkoak eta aldakorrak. Orohar, gure negozioaren kostu egitura kostuetan oinarritutako ikuspuntua izaten saiatu gara. Horrek kostu egitura ahalik eta txikiena lortu nahi du, prezio baxuduneko balio proposamen batetaz abiatuta.

Kostu finkoei dagokionez, soldatak, alokairua eta aseguruak aurkitzen ditugu. Lokala alokatzeko 800 euro izango lirakeke hilero. Hasierako inbertsioak kontuan izan behar du ere, ordaindu beharreko fidantza, 2000 euro ingurukoa izan daitekeela. 2272€-ko soldata izango dugu guztira, 1.500€(soldata) + 772(gizarte segurantzaz). Maileguaren amortizazio kuota dagokionean 10 urtetan finantziatzea espero dugu, 350 euroko amortizazio kuota izango duena.

Kostu finkoak

- Alokairua **800€**
- Soldatak(5 langile) **11.360€**
- Maileguaren amortizazio kuota **350€**
- Vodafone one ilimitada **70,24€** (lehenengo 6 hilabeteak)

GUZTIRA 12.520,24 €

Kostu aldakorrei dagokienez, hainbatekoak izango dira. Lehenik, jendeak produktua ezagutu ahal izateko, iragarkiak eta sare sozialak erabiliko ditugu. Horretarako, hainbat marketin kanpainia aurrera eramango ditugu hasierako 3.000 euroko inbertsioaz baliatuta. Horretan, kontuan hartzen ditugu kontratatuko dugun influencer-rari 500 euro ordainduko dizkiogula. Soberan geratzen den diruarekin, Instagram eta Facebook sare sozialak inplementatu duten funtzio berriari etekina atara nahian, gure kontua promozionatuko dugu. Honek konsistitzen du diru kantitate bat ordaintzean gure kontuak ikusgarritasuna irabaz dezan; guk erabaki dezakegu zer diru kantitate ipini eta horren arabera gure kontua geroz eta pertsona gehiagori iritsiko da. Aurrerago, irabaziak gora egin ahala, iragarki gehiago ipintzea planteatuko genuke.

Bestalde, webgune bat sortuko dugu produktuaren informazio guztia eguneratzeko, gure taldeko ingeniariak aurrera eramango duena enpresan duen rolaren zati bezala. Hortaz aparte, produktuaren ekoizpenarako beharrezkoak diren materialak, ura, argindarra, bulegoko materialak, Xchanger egiteko lehengaiak... kontuan hartu behar dira. Hona hemen:

Kostu aldakorra (gutxi gora-beherakoa)

- Produktua unitateko kostua: 19,99€(saldu) - 12€(kostatu) = 7,99€ (irabaziak)
 - Erresistentzia kartutxoa 5€/u
 - Karkasa 1€/u
 - Bateria 5€/u
 - Produktuaren garraioa 0,50€/u X2 (dendara etorri eta saltzera eraman)
- Argindarra 200€/hila
- Ura 100€/hila

Gure ideia patentatu beharra ikusita, beste inork erabili ezin dezan gure baimenik gabe. Patente prozesu batzuk egin behar izan ditugu, eta horien kostua 101,38 eurokoa izan da. Hasierako inbertsioak horrek kontuan izan beharko du ere, baita goian aipatutako lokalaren fidantza eta hura osatzeko beharrezkoa izango dugun materiala. Hura honakoa izango da:

LEKUA	MATERIALA	KOPURUA	PREZIOA (€)	TOTALAK (€)
OFIZINA	Aulki erosoak	5	28,42	142,1
	Aulki normalak	15	5,69	85,35
	Erlojuak	3	19,99	59,97
	Ordenagailuak	5	194,03	970,15
	Estanteriak	5	1	5
	Telefonoak	5	59,99	299,95
	Kafe makina	1	89,9	89,9
	Paperontziak	6	9,99	59,94
	Imprimagailu	2	70	140
	Lanpara	10	17,91	179,1
	Boligrafoa antolatzaile	2	1,48	2,96
	Artxibategi	2	59,69	119,38
	Karpetak	20	0,72	14,4
	Boligrafo set-a	2	5,49	10,98
	Katitatezko boligrafoak	5	38,99	194,95
	Posti-it	10	1,89	18,9
	Clip pack-a	2	9,56	19,12
	Borragomak	2	7	14
	Kutxa gotor	1	34,99	34,99
	Ofizinako plaka izenarekin	5	26	130

	Tablet diseinu	2	19,89	39,78
	Arbel portatil	1	119,95	119,95
	Kafe makina	1	26,52	26,52
	Ticketentzako imprimagailia	1	49,95	49,95
DENDA	Kortxoa	1	3,11	3,11
	Apalategi	2	24,99	49,98
	Salmahai	1	150	150
	Soportes de exhibición	3	14,99	44,97
	Kutzazain erregistratzailea	1	345,99	345,99
			TOTALA (€)	3421,39

Gainera, larrialdietarako funts bat ere izan nahi dugu. COVIDak argi utzi du edozein unetan eragozpenak gerta dakizkiekeela langileei, eta horiek zaintzeko helburuarekin, bakoitzaren hilabete bateko soldata gordeta eduki nahi dugu horrelako larrialdietan irtenbide bat eman ahal izateko. Guzti hori kontuan izanda, hasierako inbertsioa eta mailegua honakoak izango lirateke:

HASIERAKO INBERTSIOAK

- Gure patentea → **101,38€**
- Lokala prestatzeko → **3421,36€**
- Marketing kanpania → **3000€**
- **Lokalaren fidantza → 2000€**
- **Larrialdi funtsa: soldatak (2272€) X5 → 11.360€**
- **Kostu aldakorrak hilean (lehen hila): 2700€**
 - Argindarra 200€/hila
 - Ura 100€/hila
 - Produktua unitateko kostua 12€/u X200 (gutxienez)

GUZTIRA 33.942,77€